


Emakumeen Aztarnen Mapa Basaurin

Mapa de las Huellas de las Mujeres en Basauri



Un mapa de la localidad de Basauri con varios puntos rojos que indican las huellas de género, feministas y de mujeres.

Genero-Aztarnen, Aztarna Feministen eta Emakumeen Aztarnen Mapa, hiriaren esparruan, gure herrietako emakumeen memoria kolektiboa berreskuratzeko eta ageriko egiteko aukera ematen digun tresna da.

Basauriko emakumeentzat eta feminismorako garrantzitsuak izan diren edo diren tokiak eta uneak, bai sinbolikoak, eta bai materialak ere, irudikatzen dituzte aztarnak. Aztarnez hitz egiteak bidea ematen digu memoriako tokiak berreskuratzeko eta sortzeko; emakumeen eta feminismoaren iragan kolektiboa transmititzeko balio duten memoriako tokiak, hain zuzen. Ez badago aztarnarik, ez dago oroitzapenik eta sozialki, etorkizuneko belaunaldiek gogoratzea merezi duela uste dugunaren transferentzia bermatzeko aukera galtzen dugu.

Ezinbestekoa da emakumeek hiriko tokiei beste esanahi bat eta berria ematea, beren guneak eskatzea eta beren memoria gordetzea, beren izatea onartua eta gogoratua izan dadin.

Emakume askoren laguntzaren bidez, gure herriaren historiaren zati handi bat berreskuratu dugu, aztarna hauek identifikatuta eta horien esanahia aztertuta, egun bertan bizi garenontzat eta etorkizuneko belaunaldientzat erreferente izan daitezten.

Murgil zaitetz historian, eta ibili gurekin hilero-hilero bide honetan, aztarnak kontatzen digutena ezagutzen.

El Mapa de las Huellas de Género, Feministas y de Mujeres es un instrumento que nos permite recuperar y visibilizar la memoria colectiva de las mujeres de nuestras localidades en el ámbito urbano.

Las huellas representan aquellos espacios y momentos, tanto simbólicos como materiales, que han sido o son importantes para las mujeres y el feminismo en Basauri. Hablar de huellas nos permite recuperar y crear lugares de la memoria que sirven para la transmisión del pasado colectivo de las mujeres y del feminismo. Si no hay huella no hay recuerdo y perdemos la oportunidad de garantizar la transferencia de aquello que, socialmente, creemos que merece la pena ser recordado por las generaciones futuras.

Es vital que las mujeres resignifiquen los espacios urbanos, demanden sus propios espacios y registren su memoria, para que su presencia sea reconocida y recordada.

Con la colaboración de muchas mujeres, hemos recuperado una parte de la historia de nuestro pueblo identificando estas huellas y analizando su significado para que nos sirvan como referente a quienes hoy lo habitamos y a las generaciones futuras.

Sumérgete en la historia y recorre con nosotras mes a mes este itinerario descubriendo lo que nos cuentan las huellas.

Basauriko 11 emakumeen kontrako abortu epaiketa

Bake Epaitegia • Kareaga Goikoa 52

1976 urtetik 80ko hamarkadako lehen urteetara bitartean abortatu eta abortarazi izanaz salatuta zeuden Basauriko hamaika emakumeen aurkako epaiketa giltzarria izan zen mugimendu feministako kideen arteko gerturatzea, elkartasuna eta mugimenduaren sendotzea ekartzeko, ez bakarrik Basaurin bertan, baita Euskadi osoan eta Estatuan ere. Alde horretatik, gertakari hori euskal feminismoa markatu eta bultzatu duen mugarría bihurtu da.

Juicio por aborto contra las 11 mujeres de Basauri

Juzgado de Paz • Kareaga Goikoa 52

El Juicio a las once mujeres de Basauri acusadas de abortar y practicar abortos, que se extiende en el tiempo desde 1976 hasta los primeros años 80, es una fecha clave que provocó el acercamiento, la solidaridad y el fortalecimiento del movimiento feminista no sólo a nivel municipal, sino en todo Euskadi y en el ámbito estatal. En este sentido, este acontecimiento se ha convertido en todo un hito que marcó e impulsó el feminismo vasco.



Emakumeen parte hartze sozial eta politikoaren indartzea

Jabekuntza Eskola

Axular kalea, 28

Basauriko Emakumeentzako Jabekuntza Eskola, axular 28 kalean dagoena, 2003an martxan jarri zen proiektua da. Bertan, Udalerriko emakumeen gizarte parte hartzea eta politikoa indartzea eta sustapena lantzen dira.

Hitzaldi, mintegi, ikastaro, topaketa..., hauen guztien bitartez, emakumeok bizi dugun errealitatearen inguruko formakuntza eta norbanako eta taldeko jabetze prozesua bultzatzen da, aldaketa pertsonalak eta kolektiboak sor daitezela bultzatuz.

Ohiko genero-nortasunak zalantzan jarriz, Eskolak gizarteratze eredu berriak lantzen dituen gunea bilakatu nahi du; Emakumeak, berrasmatu, indartu eta benetako berdintasuna lortzeko beharrezkoak diren aldaketengatik lan egiteko aukera eskaintzen duen espazioa izan nahi duelarik.



El fortalecimiento de la participación social y política de las mujeres

Escuela de Empoderamiento

Calle Axular 28

La Escuela de Empoderamiento para Mujeres de Basauri, actualmente situada en la calle Axular 28, es un proyecto que nace en el 2003 con el objetivo de fortalecer y fomentar la participación social y política de las mujeres del Municipio.

A través de charlas, talleres, cursos, encuentros... se fomenta la formación y la toma de conciencia individual y colectiva de la realidad que vivimos las mujeres buscando la generación de procesos de cambio personales y colectivos.

La Escuela quiere ser un lugar donde se promuevan nuevas socializaciones a partir del cuestionamiento de las identidades de género tradicionales, un espacio en el que las mujeres puedan reinventarse, fortalecerse y trabajar por los cambios necesarios para lograr la igualdad plena y efectiva.

Emakumeen berdintasuna Udal Erakundeetan

Berdintasun Arloa

Bidearte kalea, 10

2000. urtean, elkarte feministek eta emakumeen elkarteek behin eta berriz egindako eskarien ondoren, berdintasun arloa sortu zen. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko politika publikoak diseinatu eta bultzatzeko helburuarekin, giza baliabidetako arlo hori sortu zen, eta proiektu berrien bideari ekin zitzaion, zeina mugarrizko izan den orduan, zeren eta berdintasuna udalaren agenda politikoan txertatua geratu baita.



La Igualdad de las Mujeres en la Institución Municipal

Área de Igualdad

Calle Bidearte 10

En el año 2000, tras las sucesivas demandas ejercidas por las asociaciones feministas y de mujeres del pueblo, se crea el área de igualdad. Con el objetivo de diseñar e impulsar políticas públicas a favor de la igualdad de mujeres y hombres se dota esta área de recursos humanos y se comienza un camino de proyectos que supone un hito ya que a partir de entonces se incluirá la igualdad en la agenda política municipal.

Plazak

Arizgoitiko Plaza

Basauriko plazak, nagusiki, Benta, Arizgoiti eta Solobarriakoak, udalerriko toki publikoen artean nagusiak dira, eta bertan joaten da herriko gizarte, kultura, aisialdi eta zainketa bizitzako zati handi bat. Nahiz eta zainketa horiek egiten oraindik ere gehienak emakumeak diren, modu adierazgarrian handitu da toki horietan ikus dezakegun gizon kopurua, direla aitak, direla aitonak.

Bestalde, plaza horiek toki estrategiko bihurtzen dira, emakumeak eta beren aldarrikapen feministak ikusteko, urteko egun nabarmen eta berezi batzuetan: hain zuzen, martxoaren 8an (Emakumeen Nazioarteko Eguna) eta azaroaren 25ean (Emakumeekiko Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna).



Las Plazas

Plaza de Arizgoiti

Las plazas de Basauri, principalmente, la de Benta, Arizgoiti y Solobarria, son los lugares públicos por excelencia del municipio en los que se desarrolla gran parte de la vida social, cultural, de ocio y de cuidado del pueblo. A pesar de que las mujeres sigan siendo quienes realizan de forma mayoritaria estas tareas de cuidado, el número de hombres, padres y abuelos, que podemos observar en estos espacios ha aumentado de manera significativa.

Además, fechas destacadas como el 8 de Marzo (Día Internacional de las Mujeres) y el 25 de Noviembre (Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres) convierten estas plazas en lugares estratégicos para visibilizar a las mujeres y sus reivindicaciones feministas.

Emakumeen lan adierazgarria

Eskarabilerera

Nagusia kalea

Eskarabileraren figurak XX. mendean hasieran premia ekonomiko handiak zeuden garaiko Basauriko emakumeak irudikatzen ditu. Izan ere, lurrun indarrezko trenak ibiltzen ziren burdinbideetara edo galdaketa enpresen hondakindegietara, besteak beste, Baskoniara, “eskarabila” izeneko ikatzaren bila joaten ziren emakumeak ziren, eta gero sukalde ekonomiko zaharretan erabiltzen zuten. Emakume askoren errealitatea ezaugarritzen duen pobrezia eta eskasia irudikatzen du lan horrek. Egun, Kale Nagusian dagoen monumentuak lan horretan aritu ziren emakume guztiak omendu nahi ditu eta esker ona adierazi nahi die. Eta, gainera, zaindariaren omenez Basaurin egiten diren jaien figura adierazgarria da Eskarabilerera.

Un trabajo emblemático de las mujeres

Eskarabilerera

Calle Nagusia

La figura de la Eskarabilerera representa a las mujeres que en Basauri, en épocas de mayor necesidad económica, a comienzos del siglo XX, iban a las vías por donde circulaban los trenes de vapor, o a las escombreras de las empresas de fundición, como la Baskonia, en busca del carbón denominado “eskarabila”, que luego era utilizado en las antiguas cocinas económicas. Este trabajo representa la pobreza y la precariedad que caracteriza la realidad de muchas mujeres. En la actualidad, este monumento ubicado en la calle Nagusia, pretende homenajear y reconocer a todas las mujeres que desempeñaron esta tarea, además la Eskarabilerera es la figura representativa de las fiestas patronales de Basauri.



Emakumeen alfabetatzea

Helduentzako Hezkuntza Zentroa

Ibaigane kalea z/g

Basauriko Helduei Prestakuntza emateko Eskola duela 30 urte baino gehiago sortu zuten heziketa zentroa da, eta, batez ere, belaunaldi bateko emakumeei bidea eman zien ordura arte debekatuta izan zuten prestakuntza arlo batera sartzeko. Hartara, beren gaitasunak, buruestimua eta aberaste pertsonala handitu ziren.

Dena den, hori guztia ez zen posible izango, ikastetxe irakasle talde baten sentiberatasuna eta berdintasunezko balioekiko konpromisorik ez balitz izan, beren eskoletan gogoeta egiteko gaitasuna eta begirada feminista bultzatu eta sustatu baitute, eta urte hauetan guztietan emakumeentzako jarduera mordo bat bultzatu baitute.



La alfabetización de las mujeres

Centro de Educación de Personas Adultas

Calle Ibaigane s/n

La Escuela de Formación para Personas Adultas de Basauri es un centro educativo creado hace más de 30 años que permitió, sobre todo a las mujeres de una generación, acceder a un espacio formativo que les había sido vedado, provocando el aumento de sus capacidades, su autoestima y su enriquecimiento personal.

Todo esto, no hubiera sido posible sin la sensibilidad y el compromiso con los valores igualitarios de un puñado de profesoras del centro, que han promocionado y fomentado en sus clases la capacidad de reflexión y la mirada feminista y han promovido en todos estos años una cantidad enorme de actividades dirigidas a mujeres.

Kulturatik gizarte aldarrikapenetara

Ibaiganeko Kultur Etxea

Ibaiganeko Kultur Etxea funtsezko gunea izan da Basauriko emakumeentzat, sozializazioa lortzeko, elkartzeko eta topatzeko, eta hor bultzatu da, bai emakume elkarten sorrera, bai horien parte hartzea udalerriko jarduera publiko, kultural eta politikoetan.

Urtetan martxoaren 8a ospatzeko tokia izan da, eta “Emakumearen Gelaren” kokalekua, ekimen hori izan baitzen gaur eguneko berdintasuneko udal politiken aitzindaria.

De la cultura a la reivindicación social

Casa de Cultura de Ibaigane

La Casa de Cultura de Ibaigane ha sido un espacio básico de socialización, de reunión y de encuentro para las mujeres de Basauri, desde donde se ha impulsado la creación de asociaciones de mujeres y su participación en actividades públicas, culturales y políticas del municipio.

Ha sido durante años lugar de celebración del 8 de marzo y de ubicación del “Aula de la Mujer” iniciativa precursora de las actuales políticas de igualdad municipales.



Emakumeen elkarteratzea

Antzinako Arizko Eskolaurrea

Elkartzeko, prestakuntza hartzeko, eskubideak aldarrikatzeko, eta beren arteko harreman eta laguntza sareak sortzeko espazioak edo tokiak eskatu eta erabili izan dituzte emakumeek. Hartara, udalerrri osoan daude emakumeen hainbat elkartek erabiltzen dituzten lokalak.

Elkarte horietako kide diren emakumeentzat, lokal horiek funtsezko tokiak eta erreferentziak dira; izan ere, horietan harremanak dituzte eta mota guztietako jarduerak egiten dituzte, eta, horrenbestez, beren tokiak direla ulertzen da eta nortasun ezaugarria dutela, bai pertsonala, bai taldekoa.



El asociacionismo de las mujeres

Antiguo Parvulario de Ariz

Las mujeres han demandado y utilizado espacios propios en los que reunirse, formarse, reivindicar derechos y crear relaciones y redes de apoyo entre ellas. A lo largo del municipio nos encontramos con locales utilizados por diferentes asociaciones de mujeres.

Para las que forman parte de las asociaciones, sus locales son espacios y referencias esenciales; en ellos se relacionan y realizan todo tipo de actividades, por lo que pueden ser entendidos como lugares propios, de pertenencia y de sentido identitario, personal y grupal.

Emakumeen hezkuntza sistema publikoaren aldarrikapena

Agirre Lendakaria kalea, 95

Auzo mugimenduko emakumeek eskatu zuten beren auzoetan eskolak eta haurtzaindegiak sortzea. Era berean, euskararen igorle eta defendatzaile sutsuak izan ziren, eta ama eta irakasle askok euskaraz eskolatzea bultzatu zuten eta, hartara, lanaren eta aktibismoaren arteko bereizketarik ez zuen lana egin zuten.

Basaurin euskal eskola publikoa eta beren seme-alabak D ereduaren eskolatu ahal izatea, egungo hezkuntza sistemaren ernamuina, lortu zuten arte amore eman ez zuten amen lana nabarmendu behar da.

Egun oraindik ere gurasoen elkarrekin osatzen dituzten pertsona gehienak, hau da, heziketarekin lotutako arloak osatzen dituztenak, emakumeak dira.

La reivindicación de las mujeres de un sistema público de enseñanza

Calle Lehendakari Agirre 95

Fueron las mujeres del movimiento vecinal las que demandaron la creación de escuelas y guarderías en sus barrios. Fueron también las mayores transmisoras y defensoras del euskera, muchas madres y profesoras impulsaron la escolarización en euskera realizando un trabajo en el que no existía línea divisoria entre el empleo y el activismo.

Destaca la labor de las madres que no cesaron hasta conseguir en Basauri una escuela pública vasca y el derecho a escolarizar a sus hijos e hijas en el modelo D, germen del actual sistema educativo.

Todavía hoy la mayoría de las personas que conforman las AMPAS, Asociaciones de Padres y Madres, espacios ligados al ámbito educativo, siguen siendo mujeres.



Emakumeak fabriketan

Basauriko industrialdea

Basauriko emakumeek modu aktiboan parte hartu izan dute inguru honetako industrian; hain zuzen ere, oso modu desberdinetan aritu izan dira: nagusi, langile, sindikalista, arduradun, eskarabilerak..., moduan aritu izan dira. Esperientzi multiple horrek ikaragarri baldintzatu eta aberastu du emakumeek arlo publikoan, erreindikazioan eta lan esparruko eskubide berdintasunaren aldeko borrokan parte hartzeko modua.

Las mujeres en las fábricas

Polígono industrial de Basauri

Las mujeres de Basauri han participado de forma activa en la industria de la zona, han estado presentes de modos muy diferentes como patronas, obreras, sindicalistas, encargadas, eskarabilleras... Esta experiencia múltiple ha condicionado y enriquecido sobremanera la forma de participación de las mujeres en el espacio público, en la reivindicación y la lucha por la igualdad de derechos en el ámbito laboral.



Indarkeria sexista ikusgai eginez

Emakumeen Informazio Zentroa

Leon kalea 13

Emakumeen Informazioa Zentroa 1989ko martxoaren 8an inauguratu zuten. Basauriko Emakumeen Elkarteak bultzatutako eta kudeatutako proiektua da, eta hango profesionalak 1989 eta 2003 urteen artean ia modu boluntarioan eman zuten zerbitzua. Urte horretan udala-zerbitzu bihurtu zen, indarkeria sexistaren biktima diren emakumeei harrera egitean, informazioa ematean, eta laguntza juridikoa eta psikologikoa ematean espezializatua.

Haciendo visible la violencia sexista

Centro de Información a Mujeres

Calle León 13

El Centro de Información a Mujeres fue inaugurado el 8 de Marzo de 1989. Es un proyecto impulsado y gestionado por la Asociación de Mujeres de Basauri, cuyas profesionales prestaron el servicio casi de forma voluntaria desde 1989 hasta que en 2003 se convierte en el servicio municipal especializado en acogida, información y atención jurídica y psicológica a mujeres víctimas de violencia sexista.



Emakumeen sexu eta ugaltze eskubideak

Antzinako Familia Plangintza Zentroa

Bentako Plaza

70eko hamarkadaren amaiera aldera, mugimendu feministak bere errebindikazio jardunaren zati handi bat sexualitatearen eta ugalketaren arloan bildu zuen. Emakumeek beren gorputzaren gainean erabakitzekeo eskubidea, sexu eta ugalketa askatasuna aldarrikatzea, eta heterosexualitatearen eredu normatiboari eta nahitaez ama izateari kritika egitea, aldarrikapen hauen ardatz nagusiak izan dira.

Testuinguru horretan, Basauriko Emakumeen Elkartek Familia Plangintza egiteko Zentroa sortu zuen 1982 urtean, planing-a. Beste talde feminista batzuekin batera, diziplina ugari hartzen zituen talde bat eratzearen alde egin zuten. Hartara, talde hori medikuek, psikologoek, sexologoek eta hezitzaileek osatu zuten, eta, ikuspegi feministatik, emakumeen osasunerako arreta osoko programa bat egin eta abian jartzeko gai izan zen.

Los derechos sexuales y reproductivos de las mujeres

Antiguo Centro de Planificación Familiar

Plaza de Benta

A finales de la década de los setenta, el movimiento feminista concentra gran parte de su actividad reivindicativa en el campo de la sexualidad y la reproducción. El derecho de las mujeres a decidir sobre sus cuerpos, la libertad sexual y reproductiva, así como la crítica al modelo normativo de heterosexualidad y la maternidad obligatoria son los ejes de estas reivindicaciones.

En este contexto la Asociación de Mujeres de Basauri creó en 1982 el Centro de Planificación Familiar, el planing. Para ello, apostaron junto con otros grupos feministas por la formación de un equipo multidisciplinar, médicas, psicólogas, sexólogas, educadoras, capacitado para elaborar y poner en marcha un Programa Integral de Atención de la salud de las mujeres desde la perspectiva feminista.



Emakume emaginen omenez

Juana Madariaga Kalea

Juanita Madariaga eta haren alaba Manuela Eguiguren emagin ezagunak izan ziren, eta, beren ezagutzak eta trebetasunak baliatuz, berrogei urtean baino gehiagoan basauriar ugari lagundu zioten jaiotzen. Erditu baino lehen, bitartean eta ondoren laguntzen zieten emakumeei. Manuela eta Juana ama bezala, asko aritu ziren emagin onarpen profesionalik eta, kasu askotan, ekonomikorik gabe, baina esperientziak ematen duen jakinduria handiarekin.

En homenaje a las mujeres comadronas

Calle Juana Madariaga

Juanita Madariaga y su hija Manuela Eguiguren fueron unas reconocidas parteras que con sus conocimientos y destrezas ayudaron a venir al mundo a multitud de basauritarras durante más de cuarenta años. Ellas acompañaban y ayudaban a las mujeres antes, durante y después del parto. Muchas, como en el caso de Manuela y su madre Juana, ejercieron como comadronas sin reconocimiento profesional ni en muchos casos económico, pero con el gran saber que otorga la experiencia.



Emakumeen lan ikuseziak

Merkatu Plaza

Azokako plaza, egun Piru Gainza kalean dagoela, emakumeak hartu dituen tokia izan da historian, etxeko lanekin eta ugalketarekin lotuta egon baita. Generoen arteko desberdintasunak ikusten diren lekua da, etxearekin eta zainketarekin lotutako egitekoen eta rolen banaketa desberdina agerikoa egiten baita bertan, esate baterako, erosketak egitea.

Hartara, azokako plaza emakume askok beren bizitza soziala egiteko toki nagusietako bat da eta, era berean, generoen arteko praktketan gertatzen ari diren aldaketak ikusteko toki ari da bihurtzen egun.

El trabajo invisible de las mujeres

Plaza del Mercado

La plaza del mercado, actualmente ubicada en la calle Piru Gainza, ha sido un lugar históricamente habitado por las mujeres por estar relacionado con las tareas domésticas y la reproducción. Es un espacio en el que se reflejan desigualdades de género, al hacerse visible en él la distribución dispar de las tareas y roles relacionados con el hogar y el cuidado, como la compra.

Este hecho hace de la plaza del mercado, uno de los lugares principales en los que muchas mujeres han desarrollado parte de su vida social y al mismo tiempo, en la actualidad es un espacio en el que comienzan a expresarse cambios en las prácticas de género.



Huellas

- 1 **Basauriko 11 emakumeen kontrako aborto-epaiketa. Bake Epaitegia.** Kareaga Goikoa 52
Juicio por aborto contra las 11 mujeres de Basauri. Juzgado de Paz. Kareaga Goikoa 52
- 2 **Emakumeen parte hartze sozial eta politikoaren indartzea. Jabekuntza Eskola.** Axular kalea, 28
El fortalecimiento de la participación social y política de las mujeres. Escuela de Empoderamiento. Axular, 28
- 3 **Emakumeen berdintasuna udal instituzioan.** Berdintasun Arloa. Bidearte kalea, 10
La igualdad de las mujeres en la institución municipal. Área de igualdad. Bidearte, 10
- 4 **Plazak.** Arizgoitiko Plaza
Las Plazas. Plaza de Arizgoti
- 5 **Emakumeen lan adierazgarria.** Eskarabilera. Nagusia kalea
Un trabajo emblemático de las mujeres. Eskarabillera. Calle Nagusia
- 6 **Emakumeen alfabetatzea. Helduentzako Hezkuntza Zentroa.** Ibaigane z/g
La alfabetización de las mujeres. Centro de Educación de personas adultas. Ibaigane s/n
- 7 **Kulturatik gizarte aldarrikapenetara. Ibaigane kultur etxea.** Ibaigane kalea, 2
De la cultura a la reivindicación social. Casa de cultura de Ibaigane. Calle Ibaigane 2
- 8 **Emakumeen elkarteratzea.** Antzinako Arizko Eskolaurrea
El asociacionismo de las mujeres. Antiguo Parvulario de Ariz
- 9 **Emakumeen hezkuntza sistema publikoaren aldarrikapena.** Agirre Lendakaria kalea, 95
La reivindicación de las mujeres de un sistema público de enseñanza. Calle Lendakari Agirre 95
- 10 **Emakumeak fabriketan.** Basauriko industrialdea
Las mujeres en las fábricas. Polígono industrial de Basauri
- 11 **Indarkeria sexista ikusgai eginez.** Emakumeen Informazio Zentroa. Leon kalea, 13
Haciendo visible la violencia sexista. Centro de Información a Mujeres. Calle León 13
- 12 **Emakumeen sexu eta ugaltze eskubideak.** Familia Plangintza Zentroa. Bentako Plaza
Los derechos sexuales y reproductivos de las mujeres. Antiguo Centro de Planificación Familiar. Plaza de Benta
- 13 **Emakume emaginen omenez.** Juana Madariaga kalea
En homenaje a las mujeres comadronas. Calle Juana Madariaga
- 14 **Emakumeen lan ikusezina.** Merkatu Plaza
El trabajo invisible de las mujeres. Plaza del Mercado
- 15 **Emakumeen arteko topaketa eta elkartasunerako gunek.** Harraskak. Ixatsak Parkea. San Miguel
Lugares de encuentro y solidaridad entre mujeres. Los lavadores. Parque Pinceles. San Miguel

